

# HAITZ INSAUSTI VILLARREAL

E Maila | Bertsoa | aipamen saria

Kaixo, ni Haitz Insausti naiz eta Beasaindarra naiz, 11 urte ditut eta Andramendi Ikastolakoa naiz. Nire zaletasunak (batez ere) futbola, musika entzutea, kirola egitea... dira. Etorkizunean abokatua izan nahi dut. Ikasgai gustukoena matematika da.



## KOLOREAK ETA LAGUNAK

**Doinua:** Astoa ikusi nuen

Berde, urdin, marroia

Hainbeste al daude?

Berdea, adibidez

gehienetan pure,

Urdina gehientzat

itsasoko lore,

Eta marroia lasai,

zu ere bazaude.

Niretzako ditugu  
garrantzitsuenak,  
nik ditudanak dira  
niretzat onenak,  
zerbait behar baduzu  
beti hor daudenak,  
nire lagunak dira  
beharrezkoenak